

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARAMAIOKO UDALA

#### Udal karguak betetzeagatik ordainsariak

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikulua betetzeko, aditzera ematen da, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak, 2019ko ekainaren 20an egin-dako bileran, honako akordio hau hartu zuela:

Lehena. Alkatea kargua betetzeagatik ordainsaria jasotzeko eskubidea finkatzea, baldintza hauetan:

1. Dedikazioa erabatekoa izango da.
2. Ordainsari gordina: 39.510,00 euro urteko; kopuru hori urtean 14 ordainsarietan banatuko da.
3. Ordainsaria jaso ahal izateko dedikazioa izango da, udal enplegatu publikoen lanaldi osoa. Aldi berean, udal enplegatuei araudiak ezartzen dizkien soldata aldaketak ezarriko zaizkio.
4. Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean alta emango zaio.
5. Erabaki honek efektuak izango ditu legealdiak irauten duen artean edota, arauak ezarritako arrazoiengatik, alkate izateari uzten dion arte.
6. Ez du parte den organo kideanizetara joateagatik bertaratze edo asistentziarik jasoko.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Aramaion, 2019ko uztailaren 1ean

*Alkatea*

*LIERNI ALTUNA UGARTE*